

**INGURUMENEN TOKIKO FOROAREN ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE
BILERAREN AKTA (24.06.18) MEDIO AMBIENTE (18.06.24)**

INGURUMENEN ZINEGOTZIA:
IÑIGO URKITZA jn.

CONCEJAL DE MEDIO AMBIENTE:
D. INIGO URKITZA

INGURUMENEN TEKNIKARIA:
JOSU ATEKA jn.

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA

FOROKO IDAZKARIA:
ARANTZA CABEZA and.

SECRETARIA DEL FORO:
D^a ARANTZA CABEZA

ZERBITZU TEKNIKOEN SAILA-ZERBITZU
AZPIEGITURA:
KEPA SACRISTÁN jn.

ÁREA DE SERVICIOS TÉCNICOS-
INFRAESTRUCTURA SERVICIOS:
D. KEPA SACRISTÁN

AHOLKULARIA:
EUGENIA ATIN and.

CONSULTORA:
D^a EUGENIA ATIN

BERTARATUTAKOAK:

ASISTENTES:

XABIER BUENETXEA jn. (Ingurumen gaietan ospe handia duen pertsona)
JOKIN CORTEZÓN jn. (Argia Fundazioa)
YENNY MEDRANO and. (Getxo Enpresako ordezkaria)
JOSERRA OTEGI jn. (Ekologistak Martxan)
EMILIO MARTINEZ jn. (Julio Caro Baroja)
KOLDO NABASKUES jn. (Euskal Kontsumitzaileen Alkarteko ordezkaria)
JUANJO QUIÑONES jn. (Urtealaiakeko ordezkaria)
KARMELE URQUIJO and. (Gizatiarreko ordezkaria)

D. XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente)
D. JOKIN CORTEZÓN (Fundación Argia)
D^a YENNY MEDRANO (Representante de Getxo Empresa)
D. JOSERRA OTEGI (Ekologistak Martxan)
D. EMILIO MARTINEZ (Centro escolar Julio Caro Baroja)
D. KOLDO NABASKUES (Representante de la Asociación de Personas Consumidoras y Usuarías Vasca)
D. JUANJO QUIÑONES (Representante de Urtealaiak)
D^a KARMELE URQUIJO (Representante de Gizatiar)

Honako hauek ezin etorria azaldu dute:

JANIRE OCIO and. (Hirigintza, Obra Eta Zerbitzu Arloko Zinegotzia)
IÑIGO AZKARATE jn. (Trinitarias)
JAVIER LOIDI jn. (Unibertsitate munduko pertsona)
TXARO ARCENIEGA and. (Basozaleakeko ordezkaria)

Excusan su no asistencia:

D^a JANIRE OCIO (Concejala Del Área De Infraestructuras, Obras Y Servicios)
D. IÑIGO AZKARATE (Centro escolar Trinitarias)
D. JAVIER LOIDI (Persona del mundo de la universidad)
D^a TXARO ARCENIEGA (Representante de Basozaleak)

Getxon, 2024ko ekainaren 18an, arratsaldeko zazpitan bildu da Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa, eta arestian aipatutako kapitularrek parte hartu dute.

En Getxo, a 18 de junio de 2024 se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

GAI ZERRENDA

ORDEN DEL DÍA

Bileraren hasieran Eugenia Atinek adierazi du Foroko zenbait kidek ezin etorri izana adierazi dutela.

Al comienzo de la reunión, Eugenia Atin excusa la no asistencia de algunos miembros del Foro anteriormente citados.

1.-2024ko maiatzaren 21ean egin ziren Ingurumeneko Toki Foroko bilkurei dagozkien aktak onestea.

Aho batez onartu da.

2.- 2030 Tokiko Agenda Plan berriaren zirriborroaren aurkezpena (2024-2027 aldia). Ildo Estrategikoak 4. eta 5. (Natura ondarea eta biodibertsitatea eta Baliabideen erabilpen jasangarria).

Gaurko saioan, jarraituko dugu 2030 Agendaren plan berriaren zirriborroa aurkezten. Azken bileran, hiru ildo estrategiko aztertu genituen, eta oraingoan azken bi ildoak aztertuko ditugu.

Aurreko bileran egon ez ziren pertsonentzat, laburpen gisa, Eugenia Atinek azaldu du Tokiko 2030 Agendaren plan berriaren lehen zirriborroa hainbat iturri aintzat hartuta egin dela. Batetik, Ingurumeneko Tokiko Foro honen aurreko hiru bileretan egindako ekarpenak eta webgunearen bitartez jaso diren herritarren ekarpenak. Bestetik, Getxon indarrean dauden zenbait plan: 2024-2027 legegintzaldi-plana, klima-aldaketara egokitzeko plana, eta soinu-ingurua hobetzeko ekintza-plana (2024-2029).

Udaleko teknikariek oraindik ez dute lehen zirriborroa egiaztatu; alabaina, gaurko bileraren ostean, foroak baliozkotzat jo ondoren, udaleko teknikariengana eramango da planaren zirriborroa, horren bideragarritasuna aztertu dezaten. Ekintza/jarduketa batzuk ezingo dira egin eta, hortaz, ezabatuko dira eta dagokion azalpena emango zaio foroari.

Gaurko jardueran, aurrekoan bezala, Eugenia Atinek proposatu du jarduera bakoitza eta dagozkion jarduketak berrikustea, eta foroko kideei eskatu die puntuazioak (altuak, ertainak edo baxuak) esleitzeko norberak jarduketa bakoitzari ematen dion garrantziaren arabera, bere interesak eta ordezkatzeko duen elkartearen edo kolektiboaren interesak aintzat hartuta. Puntuazioak anonimoak dira eta Eugenia Atinek saioa amaitutakoan bilduko ditu batezbestekoak kalkulatzeko eta, hala, planaren azken bertsioa egitean baremo bat izateko.

Hori guztia dela-eta, ekintzak berrikusten hasi dira, natura-ondarearen eta biodibertsitatearen ildo estrategikotik hasita.

Ildo estrategikoaren ekintza eta jarduketa guztiak zerrendatu dira. Karmele Urquijok galdetu du klima-

1.- Aprobación del acta correspondiente a la reunión del Foro Local de Medio Ambiente, celebrada el 21 de mayo de 2024.

Se aprueba el acta por unanimidad.

2.- Presentación del borrador del nuevo Plan de Agenda Local 2030 (periodo 2024-2027). Líneas estratégicas 4 y 5 (Patrimonio natural y biodiversidad y Utilización sostenible de los recursos).

En la sesión de hoy, continuaremos con la presentación del borrador del nuevo Plan de Agenda 2030. En la última reunión vimos 3 líneas estratégicas y en esta sesión veremos las dos últimas líneas.

Para las personas que no estuvieron en la anterior reunión y a modo de resumen, Eugenia Atin explica que este primer borrador del nuevo Plan Agenda Local 2030 ha sido elaborado teniendo en cuenta diferentes fuentes. Por un lado, las aportaciones que ha realizado este Foro Local de Medio Ambiente en las tres reuniones anteriores, así como las aportaciones que han llegado de la ciudadanía a través de la web. Por otro lado, diferentes Planes de Getxo en vigor, como son, el Plan de Legislatura 2024- 2027, el Plan de Adaptación al Cambio Climático y el Plan de Acción para la Mejora del Ambiente Sonoro (2024-2029).

Este primer borrador aun no ha sido contrastado con el personal técnico del Ayuntamiento, pero tras la sesión de hoy, una vez “validado” por el Foro, el borrador del Plan se llevará al personal técnico del Ayuntamiento para que pase el filtro de viabilidad. Habrá acciones/ actuaciones que no podrán ser llevadas a cabo y que por tanto se eliminarán con la explicación pertinente al Foro.

En el ejercicio de hoy, Eugenia Atin propone, como la anterior vez, ir revisando cada una de las acciones y sus actuaciones y pide a los miembros del Foro que otorguen puntuaciones de alta-media-baja según la importancia que cada persona de a cada actuación en función de sus intereses y de los de la asociación/ colectivo que representa. Las puntuaciones son anónimas y Eugenia Atin las recogerá al finalizar la sesión para calcular medias y así tener un baremo a la hora de elaborar la versión final del Plan.

Comienza por la tanto el repaso de las acciones empezando por la línea estratégica de Patrimonio natural y Biodiversidad.

Se enumeran todas las acciones y actuaciones de la línea estratégica. Karmele Urquijo se interesa por el programa

aldaketara egokitzeko programari buruz eta jakin nahi du ea hiru ekintzek jarduketa-eremuak zehaztuta ote dituzten, hau da, kaltetuta dauden ekosistemak edo birsortu behar diren basoak edo ibilguak identifikatu ote diren. Kepa Sacristánek adierazi du klima-aldaketara egokitzeko planetik eratorri direla ekintzak, zeina Europako metodologia bat oinarri hartuta egin baitzen iaz. Horrenbestez, “makro” mailan geratu zen plana, “makro” adierazle eta ekintza orokorrekin. Karmele Urquijok adierazi du interesgarria izango litzatekeela errealitatera ekartzea eta birsortu behar diren eremuak identifikatzea. Ildo horretatik, Kepa Sacristánek, adibide gisa, aipatu du zuhaitz asko inauteari utzi zaiola, zuhaitzentzat nahiz herritarrontzat onuragarria delakoan, eta horrexegatik ditugu gaur egun gune gehiago gerizpetan, esate baterako San Ignazion.

Koldo Nabaskuesek proposatu zuen klima-aldaketara egokitzeko ekintzen izenak aldatzea, “birsortu”, “kudeatu” eta “berreskuratu” terminoak agertzeko, oraingo proposamenean jasotakoak baino askoz zehatzagoak baitira.

Baliabideak era jasangarrian erabiltzeari buruzko bosgarren ildo estrategikoari dagokionez, Kepa Sacristánek proposatu du beste programa bat gehitzea, lurzoruei buruzkoa, bere ustez oso garrantzitsua baita Tokiko 2030 Agendaren planean jasota geratzea udalak lurzoruak berreskuratu nahi dituela, lurzoru berriak antropizatu beharrean. Horiek horrela, esate baterako, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak industriakoa ez den erabilerarako baliatuko genituzke. Adibide gisa, aipatzekoa da Aiboako orubea, Getxo 2 institutu zaharra, zeina institutua izan aurretik zabortegia izan baitzen eta orain lantaldeen pabiloia izango baita. Klima-aldaketara egokitzeko Legeak ahalbidetzen du eta, are gehiago, horretara behartzen du. Koldo Nabaskuesek bat egin du proposamenarekin eta gehitu du lurra ere zaindu behar dela, hau da, kudeatu ezin daitezkeen lurzoruak, urbanizaezina dena. Kepa Sacristán ados dago, baina adierazi du lurra babesteko tresna HAPOa dela, bertan baztertzen baitira antropizatzeako asmoak.

“Ura” programari dagokionez, Koldo Nabaskuesek galdetu du ea zer diren itsasgora denerako euri-ura ponpatzeko sistemak. Kepa Sacristánek erantzun dio klima-aldaketara egokitzeko planak oso epe luzeko etorkizuna hartu duela kontuan eta, hala, kostaldeko biztanleentzako ekintza orokorrak proposatu dituela; esate baterako, itsas maila igo eta berrehun urte barru altuagoa izango dela aurreikusita, agian ponpatze-sistema horiek behar izango direla adierazi da, baina Getxon ez da horrelakorik behar izango. Emilio Martínezek esan du ekaitz-andela erabili ahalko litzatekeela horretarako.

de adaptación al cambio climático y si las tres acciones tienen delimitadas las áreas de actuación, es decir, si se han identificado los ecosistemas degradados o los bosques o cauces que se deben regenerar. Kepa Sacristán indica que las acciones se derivan del Plan de Adaptación al Cambio Climático que se elaboró el año pasado con una metodología europea. El Plan por tanto se quedó en el nivel macro con indicadores macro y acciones generales. Karmele Urquijo señala que sería de interés bajarlo a tierra y tener identificadas las áreas que se deben regenerar. En este sentido, Kepa Sacristán pone de ejemplo como se han dejado de podar muchos árboles para beneficio de los propios árboles y también de todas las vecinas y vecinos que disfrutamos de más áreas de sombra, es el caso de San Ignacio.

Koldo Nabaskues propone renombrar las acciones de Adaptación al cambio climático, para que sean “regenerar”, “gestionar” y “restaurar” que es mucho más directo que la actual propuesta.

Pasando a la línea estratégica cinco, de utilización sostenible de los recursos, Kepa Sacristán propone añadir un nuevo programa, uno de Suelos, puesto que le parece muy importante que quede recogido en Plan de Agenda Local 2030 la voluntad del Ayuntamiento por impulsar la recuperación de suelos en lugar antropizar nuevos suelos. De esta manera daríamos salida a suelos por ejemplo potencialmente contaminados para darles un uso industrializado. Sería el caso del solar de Aiboa, antiguo Instituto Getxo 2, que antes de instituto fue un vertedero y que ahora será el pabellón de brigadas. La Ley de Cambio Climático lo posibilita, y es más lo obliga. Koldo Nabaskues se suma a la propuesta y añade que también es necesario preservar la tierra, es decir, el suelo no gestionable, el no urbanizable. Kepa Sacristán está de acuerdo pero afirma que el instrumento para proteger la tierra es el PGOU, que elimina las voluntades de antropización.

En el programa de “Agua”, Koldo Nabaskues pregunta qué son los sistemas de bombeo del agua de lluvia para episodios de mareas altas. Kepa Sacristán responde que el Plan de Adaptación al Cambio Climático tiene un horizonte muy lejano y que ha propuesto acciones generales para poblaciones costeras pensando en que por ejemplo en 200 años, habrá subido el nivel del mar y que podrían necesitarse dichos sistemas de bombeo pero en Getxo no va a ser necesario tal sistema de bombeo. Emilio Martínez señala que podría tratarse de un tanque de tormentas, sin más.

Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuei dagokienez, Koldo Nabaskuesek galdetu du ea jarduketak udal-puntuak soilik hartzen dituen barne. Bi jarduketa daude: batek udal-puntuak hartzen ditu barne eta besteak herritarrentzat direnak (ibilgailu elektrikoentzako kargagunea). Aspalditik aztertzen ari den gaia da; izan ere, udala legez derrigorputa dago kargatzeko puntu batzuk eskaintzera, baina kasu horretan udala merkaturatzaile bihurtuko da eta, beraz, emakidak eskaintzeko aukera aztertzen ari dira. Multinazionalak udalarengana jo dute jada, baina ondorioak aztertu behar dira oraindik. Ibilgailu elektrikoek jabeek kexak aurkeztu dituzte, baina oraingoz itxaron behar dugu. Ibilgailu elektrikoek zergaren % 90eko hobaria dute.

Xabi Buenetxea, etxebizitzaren energia-birgaikuntza sustatzeko ekintzaren baitan, eskatu du gogoan izateko zuloak eta baoak utzi behar direla, esaterako hegazti trogloditentzat eta saguzarrentzat. Inguratzaileek ahalik eta efizientziarik handiena izateko asmoz, animalia horien ugalketa gelditu dezakegu.

Etxebizitzetan eguzki-plakak jartzeko laguntzari buruzko jarduketari dagokionez, Koldo Nabaskuesek iradoki du dirulaguntzak gehitzea.

Josu Ateka argitu du gaztelaniazko MER siglak zarata-mapa estrategikoa esan nahi duela. Metroak eta beste ibilgailu batzuek sortutako zarata aztertu izan da, baina hurrengo urteetarako planak aurreikusten du haratago joatea eta foku gehiagotan neurtzea zarata, esaterako ostalaritzan. Emilio Martínezek jakin nahi du ea Garraio Partzuergoak atzerapenik daukan gune jakin batzuetan metroaren zarata arintzeko jarduketak gauzatzen. Udalak badaki inbertsio handia egin dela pantailetan eta baimen batzuk eskatu direla bide publikoa okupatzeko, landare-pantailak jartze aldera, baina ez daki ez noiz ez nola jarriko diren aipatutako pantailak. Ildo horretatik, Juanjo Quiñonesek gehitu du Bidezabalen asko kexatzen direla zarataz. Josu Ateka badu horren berri eta badaki zerbait egingo dela, oso bide estua izan arren.

Hondakinen programari dagokionez, konposta egiteko instalazioari buruz galdetu du Koldo Nabaskuesek, jakin nahi baitu ea aurreikusitako bezala ote dabilen. Kepa Sacristánek erantzun dio martxan dagoela eta, beste erakunde batzuekin lankidetzan —esaterako, Zientzia Ikerketen Kontseilu Gorenarekin (CSIC)— udal-hondakinak kudeatzeko estrategia berriak jorratzen ari direla, hala nola konpostatzea eta biolehortzea, azken tratamendurako hondakinak murrizte aldera. Bi urte daramatzate proiektu batean lanean eta oso pozik daude oso emaitza onak ematen ari delako. Hondakin

Con respecto a los puntos de recarga de vehículos eléctricos, Koldo Nabaskues pregunta a ver si la actuación se refiere solamente a los municipales. Hay dos actuaciones, una para municipales y otra de puntos para la ciudadanía (electrolinera). Es un tema que se está analizando desde hace tiempo puesto que la Ley obliga al Ayuntamiento a ofrecer puntos de recarga pero entonces el Ayuntamiento se convierte en comercializador y por tanto se está analizando la posibilidad de dar concesiones. Las multinacionales ya se han acercado al Ayuntamiento pero aun hay que ver todas las implicaciones. Se reciben quejas al respecto de los propietarios de vehículos eléctricos pero de momento hay que esperar. Los vehículos eléctricos tienen el 90% del impuesto bonificado.

Xabi Buenetxea, en la acción de “Impulsar la rehabilitación energética de viviendas”, solicita que no nos olvidemos de dejar oquedades y huecos para, por ejemplo, las aves trogloditas o los murciélagos. En el afán de hacer las envolventes lo más eficientes posibles podemos frenar la proliferación tan necesaria de estas criaturas.

En la actuación de “Apoyo a las viviendas para instalar placas solares”, Koldo Nabaskues sugiere añadir también “ayudas económicas”.

Josu Ateka aclara que las siglas MER se refieren a Mapa Estratégico de Ruido. Típicament e se ha analizado el ruido proveniente del metro y otros vehículos, pero el plan para los próximos años es ir más allá y hacer mediciones de ruido en más focos como por ejemplo la hostelería. Emilio Martínez se interesa por saber si el Consorcio de Transportes lleva retraso en sus actuaciones para paliar el ruido del metro en determinadas zonas. El Ayuntamiento está al tanto de que se ha hecho una gran inversión en pantallas y han solicitado algunos permisos para ocupación de vía pública para instalación de pantallas vegetales, pero desconocen cuándo ni de qué tipo van a ser las instalaciones de las pantallas. En este sentido Juanjo Quiñones añade que en Bidezabal se quejan mucho del ruido. Efectivamente, Josu Ateka está al tanto y sabe que sí que se va a hacer algo a pesar de que el vial es muy estrecho.

En el programa de residuos, Koldo Nabaskues pregunta por la Planta de Compostaje, quiere saber si está funcionando tal y como se concibió. Kepa Sacristán responde que está en funcionamiento y que gracias a la colaboración con otras organizaciones como el CSIC, se está trabajando en nuevas estrategias de gestión de los residuos municipales en materia de compostaje y biosecado, minimizando los residuos destinados a tratamiento final. Llevan trabajando 2 años en un proyecto y están muy ilusionados porque está dando muy buenos resultados. Casi la mitad del residuo orgánico es agua y en

organikoen ia erdia ura da eta, ur hori tratatu beharrean, lortu dute mantenugai ugari dituen ura bereiztea eta ongarriak egiteko lehengai gisa erabiltzea. Horrela, ura ez da hondakina, baliabidea baizik. Ongarri gisa erabiltzen da produktua eta oso emaitza onak ematen ari da haztegi hidroponikoetan.

Asmoa ez da produktua merkaturatzea, Getxoko berdeguneetarako ongarri likido ekologiko gisa erabiltzea baizik, denok baitakigu oso lurzoru urriak dituela.

Horrez gain, lortu da instalazioaren 2.000 tonako edukiera nominala bikoiztea (+ 700 inausketa-tona). Hondakinari hezetasuna kentzen badiogu, 3.700 tonatarako edukiera egongo da. Konposta egiteko instalazioa ez da txiki geratuko, nahikoa da.

Getxoko instalazioa esperientzia pilotua izan da eta Igorre eta Berriatuara esportatu daiteke.

Emilio Martínezek galdetu du ea eskola-ikasleekin instalazioa bisitatzera joaterik dagoen. Kepa Sacristánek erantzun du pedagogia funtsezkoa dela eta betetzen ari garen ibilbide-orria dagoela (hein batean, sustapen politikoari esker), eta uneraren batean instalazioa bisitatu ahalko dela.

Joserra Otegi konpostaren kalitateagatik galdetu du. Kepa Sacristánek erantzun du A motakoa dela, hau da, ez daukala patogenorik edo metalik, eta gizakiek kontsumitzeko egokia dela. Enpresek Getxoko konpostean dute interesa; substratuetarako nahi dute eta, beraz, finagoa nahi dute. Enpresa horiek Gipuzkoatik dakarte konposta, eta era horretan garraio-gastuak aurreztuko lituzkete. Joserra Otegi galdetu du ea zein den gure konpostaren eta Konpostegikoaren arteko aldea. Kepa Sacristánek erantzun du oso desberdina dela konposta, metodologia oso bestelakoa baita. Gure pH-a ez da horren azidoa.

Hondakinak murriztu, birziklatu eta berrerabiltzea sustatzen duen kanpainaren baitan, Kepa Sacristánek azaldu du Getxon asko birziklatzen ari direla; esandakoaren arabera, oso kopuru altua lortu da (% 37) eta gaur egun beharrezkoena da zati organikoa indartzea, jatorrian egiten den bereizketa 2025ean % 55ekoa izateko helburua lortze aldera. Joserra Otegi esan bezala, legez, helburua da 2025ean % 100ekoa izatea, baina Kepa Sacristánek uste du bilketa organikoa ahalbidetzeko mekanismo guztiak ezarrita egoteari dagokiola kopuru hori.

Karmele Urquijok jakin nahi du ea herritarrak jakinaraziko ote dituzten, helburuak lortu ahal izateko. Kepa Sacristánek esan du 3.000 herritar ingururi egin zitzaizela inkesta eta horien % 92k adierazi zutela birziklatzen zutela, baina hori ez da egia, oraingo

lugar de tener que tratar esa agua, lo que se ha conseguido es separar esa agua que está llena de grandes nutrientes y utilizarla como materia prima para la elaboración de fertilizantes. Así, el agua ya no es un residuo, es un recurso. El producto se usa como abono y está dando muy buenos resultados en cultivos hidropónicos.

La intención no es comercializar el producto sino utilizarlo como abono líquido ecológico para zonas verdes en Getxo que como sabemos, tiene suelos muy pobres.

Además se consigue duplicar la capacidad nominal de la planta que es de 2.000 toneladas (+ 700 toneladas de poda). Si deshumectamos el residuo, entonces hay capacidad para 3.700 toneladas. La planta de compostaje no se queda escasa, es suficiente.

La planta de Getxo ha sido una experiencia piloto que podría exportarse a Igorre y Berriatua.

Emilio Martínez pregunta si se puede visitar la planta con los escolares. Kepa Sacristán responde que la pedagogía es fundamental y que hay una hoja de ruta que vamos cumplimentando, también gracias al impulso político y que en algún momento la planta se podrá visitar.

Joserra Otegi se interesa por la calidad del compost. Kepa Sacristán responde que es A, está libre de patógenos, no tiene metales) y es apto para consumo humano. Las empresas se interesan por el compost de Getxo, lo quieren para hacer sustratos, con lo cual lo quieren más fino. Estas empresas ahora traen el compost de Gipuzkoa, con lo cual se ahorrarían los portes. Joserra Otegi pregunta por la diferencia de nuestro compost respecto al de Konpostegi. Kepa Sacristán responde que es un compost muy diferente puesto que la metodología es distinta. Tenemos un pH menos ácido.

Dentro de la acción de la promoción de las 3Rs, Kepa Sacristán explica que Getxo está reciclando mucho, ha llegado a cifras muy importantes (37%) y en estos momentos lo más necesario es reforzar la orgánica para poder llegar al objetivo de 55% de separación en origen para 2025. Joserra Otegi señala que, según la ley, el objetivo es 100% en 2025 pero Kepa Sacristán opina que se refiere a tener implementados todos los mecanismos para facilitar la recogida de orgánica.

Karmele Urquijo quiere saber si se va a identificar a la ciudadanía para poder llegar a los objetivos. Kepa Sacristán indica que, en una encuesta realizada a 3.000 vecinos y vecinas, el 92% afirmaba que reciclaba, cosa que no es cierta porque estamos en 37%, lo cual significa que la ciudadanía sabe lo que tiene que hacer pero aun así no

kopurua % 37koa baita; hortaz, herritarrek badakite zer egin behar duten baina ez dute egiten. Zigortu orde, palanka emozionalak eta erantzukizunekoak ukitzen jakin behar da.

Oso lan garrantzitsua egiten ari dira ostalaritzan; gainera, legez hondakinez arduratu behar dira eta jarduera eten dakieke hala egin ezean. Ingurumen Unitatetik ere ekintza bat abiaraziko da ostalaritzan elikagai gutxiago xahutzea bultzatzeko.

Xabi Buenetxeak adierazi du oso interesgarriak direla etxetresna elektrikoak eta beste tresna batzuk konpontzeko proposatu diren ikastaroak. Arantza Cabezak adierazi du Berdintasun Arloak mota horretako ikastaroak eskaintzen dituela jada.

Birziklatzeagatiko hobariari dagokionez, Kepa Sacristánek azaldu du hamazazpi astero zabor organikoa birziklatzeko 37 poltsa oparitzen direla. 10 litroko poltsak dira, supermerkatuetan saltzen direnak baino askoz erresistenteagoak direnak (10 kg sartu daitezke eta besteetan, ostera, 4 kg).

Autokonpostatzea sustatzeko egin zen azken kanpainan, zehaztu zen lorategia dutenei zuzenduta zegoela.

20:40an amaitu da bilera..

lo hace. Hay que saber tocar las palancas emocionales y de responsabilidad, más que penalizarle.

Con la hostelería se está haciendo una labor muy importante y además la ley dice que se debe responsabilizar de los residuos, se les podría parar la actividad si no lo hacen. Desde Medio Ambiente se va a lanzar también una acción para motivar la aminoración de los desperdicios alimentarios en la hostelería.

Xabi Buenetxea comenta que los cursos que se proponen para la reparación de electrodomésticos y demás sería muy interesante. Arantza Cabeza señala que desde Igualdad ya se imparten este tipo de cursos.

Con respecto a la bonificación por el reciclaje, Kepa Sacristán explica que cada 17 semanas se regalan 37 bolsas para la orgánica. Se trata de unas bolsas de 10 litros que son mucho más resistentes que las que están a la venta en supermercados (aguantan 10 kilos en vez de 4).

En la última acción sobre el fomento del autocompostaje, se especifica que esto sería para personas que dispongan de jardín.

A las 20:40 horas se da por finalizada la reunión.